

GURE JARDUERA

(5)

-Sasoia hasi aintzinean egin beharreko saretokiaren garbitzea eta prestatzea, lan-taldea osatu eta txandak antolatzea...

-Lan-taldearen dinamizazioa. Talde-lana behar bezala kudeatzeko eta koordinatzeko beharrezkoa. Erabakiak eta antolaketa Usazaleen Etxolako mahaiean egiten dira. Horietan kide guziek dute parte hartzeko eta erabakitzeko aukera.

-Usategietako jarduera bera: Egunero biltzea, sareen ezartzea, abatak eta saretokiko postuak betetzea usoa biltzeko lanean (zortzi abatari, hiru sarezaï eta makila-biltzailea, guzira 12, eta laguntzera etortzen direnak), lan-eguna amaitzean sareak biltzea, eta bildutako usoen gordetzea edo banatzea.

-Jarduera ezagutara ematea: Komunikabideetan, Internet-guneetan, eta tokian bertan, sare-tokiko lana ikusteko aukera eskainiz. Guzien ondarea dela ulerturik, hartaz gozatzeko aukera ematen da.

-Bisita gidatuak norbanako nahiz adin-tarte guzietako ikasleei zuzendurik (haurrik gazteenekin hasi eta goi-mailako ikaskuntzan ari diren gazteetaraino). Aldez aitzinetik telefonoz deituz antolatu behar da.

-Gainerako Usategiekin harremana. USOAK Elkartean biltzen gara, urtean behin bilera eta bazkaria egiten ditugularik. Horrez gainera, bertze Usategietara bisitak egiten ditugu eta eurenak hartu ere bai, hala dagokigularik.

6)

GUREA ZAINDU!

Elkarteko kide izaten ahal da Etxalarko Usategietaren ohiko jarduera beteko duen oro.

Ardura hori hartu gabe nolabait ere lagundu nahi duen guzia ere gonbidatzen dugu bakoitzari iduritzen zaion moduan bere ekarpena egitera: Izaten ahal da une jakinetan laguntzera etortzea, herritar zenbaitek egiten duen moduan, edo baita Usazaleen Etxolan behar diren gastuetarako jartzen dugun kutxan diru-ekarpena egitea ere.

Herriko saltoki eta jatetxeak ere animatzen ditugu, ekarpenaren adierazgarri euren saltokian agertzeko «Usategietaren Laguntzaile» erranen duen espreski egindako makila eskaintzen diegularik.

Azkenik, Herriko Etxeari ere Elkartearentzat diru-laguntza eskatzeko asmoa dugu, herri osoak maila haundiagoan edo ttikiagoan Usategietaren jarduera gozaten duela onartzen badugu, zilegi iduritzen baitzaigu hala egitea.

Herri osoak ahalegin ttiki bat eginez gutti batzuen ahalegin haundia arintzen delako,

GUREA dena GUZION artean ZAINTZIA dagokigulako,

Orain arte katebegiz katebegi loturik iraun duen gisan hemendik aintzinerat ere hala egitea nahi dugulako,

Egin-ahala egin dezagun!

Etxalarko Usazaleen Elkartea

Elkarte hau sortzen dugu Usategietaren ohiturazko jarduera bizirik ekontzeko lanean ari garen Usazaleok EGITURA bat izateko. Lan hori egiten duen talde bat badela AGERTUZ, herriko ondarea zaintzearen BALOREA aitortzen ahal zaiola iduritzen zaigu. Aintzinerat segitzeko behar ditugun laguntza eta sostengua biltzea dugu ASMO:

-Usategietaren jarduera arautzen duen Sara-Etxalar arteko Hitzarmenaren oinarrian Usazaleen lana dagoelako.

-Herri osoak gozaten duen ondasuna sortzen duenez, herriaren babesa eta laguntza jasotzea zilegi zaigulako.

-Elkartearen izaera irekia delako, Usazaleen taldean lan egin nahi duen orok elkartean parte hartzeko aukera baitu.

-Gure jardueraz gozatzeko aukera eskaini eta heldu diren guziei harrera egiteko prest garelako.

2)

GUZION ONDAREA

Aspaldiko **EHIZA-TEKNIKA** ekontzen dugu; gure tresnak egur eta oihalezkoak dira, eta ahotsa baliatzen dugu lanerako. Lagun talde tiki batek uso gehien harrapatzen ahal duen sistema da, hainbertze mendez aritu ondotik eraginkortasuna eta iraunkortasuna ageri dituena. Erran nahi baita, teknika hau asmatu zutenek zinez ongi egin zutela, gaur eguneko teknologiek ere ez badute gainditu...

TALDE LANA du oinarri, horrek berezi egiten du gainerako ehizi-moduen aldean. Gure kulturen berezkoa da talde-antolakuntza, auzolana dugu horren adibide, eta gaur den egunean bakoitza bere buruarekin aski denaren mezua gailendu denean, Usategietan bizirik ekontzen da talde-lana: Adostasuna saiatzea, bakoitza bere lanean ari delarik elkarrekin koordinatzea, norberearen gainetik taldea aintzineratzeke egin-ahala, elkar hartzea eta armonia bilatzea... horiek ditu ezaugarri.

3

KULTURA BIZIA Usategietaren lanaren baitan hainbat jarduera bizirik ekontu dira, adibidez, aizkora hartu eta makilak egiten ikasten ahal dugu bertan, edo sareetako zuloak josten. Horrekin batean, hizkuntza ere mantentzen da, karrikan gaur den egunean galduak diren euskarazko berezko zenbait izen Usategietan bizirik dira, eta han garenok ikasi eta erabiltzen ditugu: «Bego», «gaia», «makil-gaia», «aroa» (eguraldia), «anaria», «usazalea», «apal-apal», «minbere»...

TXOLOMAREN ERAZTUNTZEA

CPAL elkartean biltzen diren ornitologoek eskutik abiatutako ekimena da, hegazti honen iraganaldia aztertzea helburu duena. Etxalarko Usategietan sarean bildutako txolomak aztertu, eraztuna jarri eta aske uzten dira, euren ibilbidea ezagutu ahal izateko.

Aipagarria da Europako Ingurumena Babesteko Araudian sare bidezko ehizia Ingurumenarekin Errespetuduna bezala agertzen dela.

Guretzat ona da Txolomaren salmenta laguntzen baitigu (ehundik goiti erosten dizkigute), baina horrez gainera, bai ikerketa bera laguntzea eta elkarlan horrekin ornitologoekin dugun harremana estutzea ere ongi heldu zaizkigu.

LIZAIETA iraganbide...

4

Bere kokapena dela-eta, Usategieta hegaztien berezko iraganbide garrantzitsua da, eta hala izanki, Lizaietako lepoan Ornitologo taldeak bere ikerketa egiten du. Hegaztien gaineko ezagutza bildu eta zabaltzeko egin-ahalean aritzen dira, eta harat galdeka hurbiltzen zaizkien guztiak atseginez hartzen dituzte.

Usategietaren jarduera begi onez ikusten dute, eta hala adierazten diete urtero etortzen diren ornitologo gazte berriei. Harreman zinez ona dugu, eta behar orduetan lagundu gaituzte!

... eta ELKARGUNE

-“Usategietaren Tradizioaren Besta” (Lizaietako Besta) orain urte batzuk abiatu zen, Sara-Etxalar hitzarmenaren harira, antolatzaile garelarik bi herrietako Usazaleak. Geroztik, Lizaietako lepoa bi herrien elkargune da, eta hortik ekimen berriak sortu dira, adibidez, Botaluze pilota jokoaren berreskuratzea eta zabaltzea. Egun hortan Bertako Ekoizleen merkatua egiten da (gaur den egunean bai Saran eta bai Etxalarren ere astero azoka egiten da), Makila-egite erakusketa, Makila-botatze lehiaketa, Tresnazaharren erakusketa etab.

300 lagun biltzen diren bazkari ederra egiten da makil-zirietan erretako aretzearekin, musika, kantua eta herri-kirolak ere izaten direlarik. Lizaietako lepoan dinamika berpiztu da, bi Bentak irekiak direlarik, eta Sarako Herriko Etxearen eskutik idorpeak, komunak eta argibide-panelak eginak izan direlarik.

Han idatzia duten moduan: «**Mugak gehienetan zatitzen du, baina hemen elkartzen gaitu. Sara eta Etxalar ber kulturakoak dira eta lepoak lotura egiten du.**»